

**HIZKUNTZA LANTZEKO GELA****Lexikoa lantzeko orientabideak**

Tradizionalki, hizkuntzak ikasteko metodoak gramatikaz jabetzean oinarritu dira, hots, hori izan da programa-diseinuen ardatza. Hizkuntzen irakaskuntzaren metodologian, lexikoa irakasteari ez zaio eman beste arlo batzuei eman zaien garrantzia, uste zabala izan baita hitzak erraz ikasten direla, era naturalean, eta erronka beste bat izan da: gramatika ikastea, egiturak ikastea.

Halere, gero eta gehiago azpimarratzen ari da lexikoa irakastearen garrantzia: gaur egun ez du inork ukatzen ulermenaren eta lexikoaren ezagutzaren artean dagoen harreman estua; eta, gainera, oinarritzko lexikoa jakitea ezinbestekoa da komunikatzeko. Batzuetan, esate baterako, komunikazio-arazo handiagoak sortzen dira hitz bat txarto erabiltzen denean akats gramatikal bat egiten denean baino. Adibidez, nik ondo uler dezaket esaldi hau: "Nire lagunari eman dut". Baina "Bigarren *"maian"* nago" entzuten badut "mahaia" ulertuko dut eta ez "maila". Argibideak beharko ditut esaldia ulertzeko.

Gainera, askotan, hitz soila komunikazioa lortzeko tresna eraginkorra da "larrialdiko egoeretan": atzerriko herrialde batera bisita egiten denean, ezezaguna zaigun hango hizkuntzaren oinarritzko hitz batzuk ikasten ditugu, oinarritzko komunikazio-beharrei aurre egin ahal izateko.

Ikasle etorkinek lexiko-premia handia dute, zalantzarik gabe. Hitz asko ikasi behar dituzte arlo sozialarekin eta arlo akademikoarekin lotutakoak. Hasiera batean, hitz solteek "larrialdiko" komunikazioa lortzen lagunduko diote; eta, ondoren, hizkuntza ikasten duen bitartean, lexikoa zabalduko du, bai harremanetarako bai arlo akademikorako. Gelako kideek prozesu bera egin dute —eta egiten ari dira— baina heldu berriek ez dute haiek izan duten denbora, eta askoz denbora laburragoan burutu beharko dute hasi berri duten bidea. Horregatik, garrantzitsua izango da lexikoa ikasten laguntzea.

Azken urteotan ikerketa asko egin dira hitzak nola ikasten diren, nola "gordetzen" diren aztertzeko, hitzak gogoratzeko erabiltzen diren estrategiak, hitzak agertzeko moduak, zer den hitz bat jakitea<sup>1</sup>... Eta hori nola den baldin badakigu, hobeto lagunduko diegu hizkuntza ikasten ari diren ikasleei lexikoaren eta hizkuntzaren jabekuntzan.

**Nola ikasten dira hitzak?**

Lexikoa egoera arruntetan ikasten da, egoera esanguratsua bada, noski; testuinguruak ulermena errazten baitu. Prozesu naturala da, horrela ikasten dira hitz berriak ama-hizkuntzan eta lexiko gehiena horrela bereganatzen da.

Testuinguruaz gain, Krashenek uste du lexikoa ikasteko modurik eraginkorrena asko irakurtzea dela; alegai, zenbat eta gehiago irakurri ikasten ari den hizkuntzan, orduan eta lexiko aberatsagoa ikasiko dela.

Ikertzaile gehienek onartzen dute testuingurua eta irakurketa direla lexikoa ikasteko bidea, baina horietako batzuek uste dute laguntzarik gabe zaila dela testuingurutik esanahia inferitzea, hitzak ulertu eta ikastea. Hau da, ikasleek laguntza behar dute hitzak ikasteko.

<sup>1</sup> Hona hemen Lily Wong Fillmorek (2000) dioena: (What Teachers need to Know About Language)

"¿Qué quiere decir adquirir una palabra? ¿Cómo sabemos que conocemos una palabra? Saber una palabra implica conocer algo de su significado principal. En el caso de *digestión* su significado principal sería: *el proceso por el cual el alimento que uno ingiere es convertido en formas más simples que el cuerpo puede usar como energía*. Pero pocas palabras son unidimensionales en su significado o uso, por lo que conocer una palabra va más allá de conocer la definición de la misma. Conocer una palabra implica también un conocimiento de cómo ésta se relaciona con formas similares (*digerir, ingerir, indigestión...*), cómo se usa gramaticalmente (clase de palabra que es en qué construcciones se puede usar) y cómo se relaciona con otras palabras y conceptos (*alimento, nutrientes, estómago...*)

La instrucción del vocabulario sería más efectiva si los profesores entendieran cómo se aprenden las palabras en contextos informales, a través de las interacciones y del lenguaje escrito. Conocer una palabra en profundidad es tan importante como adquirir nuevas palabras.



Horrela, Codyren (1997) ustez, irakurketa baldintza beharrezkoa da, baina ez nahikoa lexikoa ikasteko. Hainbat ikerlarik (Laufer, 1992) diote testu batean hitz ezagunen esanahia inferitzeko testuaren % 95 ulertu behar dela. Hau paradoxal: ikasleek hitzak ikasteko irakurri behar dute baina hitz minimo batzuk jakin behar dituzte testuak ulertzeko eta horietatik hitz berrien esanahia inferitzeko.

Hau da ikasle etorkinek duten egoera hizkuntza arlo akademikoan erabili behar dutenean: gelako lagunak "harrapatzeko", ez dute lexikoa duten beharrei erantzuteko behar beste abiadurarekin ikasten egoera esanguratsuetan eta irakurketaren bidez.

Horregatik, lexikoa irakatsi behar zaie eta ez bakarrik hori: lexikoa irakasteko estrategiak ere esplizituki landu behar dira. Horretaz gain, hitzak zenbait testuingurutan agertu beharko dira, barneratu ahal izateko. Eta hori irakurketaren bidez lor daiteke.

Kisner, Lalor eta Hard autoreek (1993) diote denbora eman behar zaiola lexikoaren irakaskuntzari, edo beste modu batean esanda, lexikoa irakatsi egin behar dela, eta, batez ere, beste hizkuntza bat ikasten ari denean. Oxford eta Scarcellaren arabera (1994) lexikoa ikasteko estrategiak esplizituki landu behar dira, eta, batzuetan, egokia izan daiteke testuinguruaren laguntza ez duten ekintza batzuk egitea, lexikoa ikasten laguntzeko.

Ez dago zalantzarik, beraz, ikasle etorkinekin hizkuntza lantzen dugunean, **lexikoaren irakaskuntzari denbora eskaini behar diogula. Eta ikasleek hitzak ikasten laguntzen diegun bitartean, horiek azkar eta hobeto ikasteko estrategiak ere landu ditzakegu.** Hasieran gelan erabiltzen diren hitz beharrezkoenak irakatsi behar zaizkie, eta laster hasi behar dute arloetako hitzak ikasten, hots, hizkuntza akademikoan erabiltzen direnak ikasten.

Horregatik, garrantzi handia izango du, batetik, goian aipatu den moduan, lexikoa ikasteko estrategien irakaskuntza, eta, bestetik, hitzak ondo aukeratzea, ondo aurkeztea, eta egoera esanguratsuak sortzea, ikasitako lexiko hori erabil dezaten.

## Nola irakasten da lexikoa?

1. Ulermena errazten duten elementuak erabili behar dira, hau da, gauzak, irudiak, keinuak.
2. Hitzak hobeto ikasten dira beste hitz batzuekin batera, ez isolatuta; hobe da hitz batzuk aukeratu (adibidez, zazpi-edo) eta haiek lantzea.
3. Hitzak ondo aukeratu behar dira, honako irizpide hauen arabera:
  - erabilgarriak esan behar dute.
  - testu edo gai bat ulertzeko beharrezkoak.
  - ikaslearen bizitzan lagunduko diotenak.

Susana Dutrok eta Carrol Moranek (2003) bereizketa bat proposatzen dute eskolan ematen den lexikoa bereizteko: *"erabilgarritasun orokorreko"* hitzak eta *"eduki espezifiko"* hitzak. Aurreko multzoari "morteroa" deitzen diete eta bigarrenari "adreiluak".

**"Mortero"**-hitzek, hizkuntza "batzen" dute, esaldiak egiteko erabiltzen ditugun hitzak dira. Horien barruan honako hauek sartzen dituzte:

- esaldi konplexuak egiteko konektoreak: *batzuetan, ondoren, halere, bitartean...*
- oinarritzko aditzak: *ikusi, joan bizi, egon, izan...*
- izenordainak eta erakusleak: *hau, gure, bestea...*
- lexiko akademiko orokorra: *pentsatu, konturatu, sailkatu, ezaugarria, analisia...*

Hitz horiek jakin behar dira testu bat ulertzeko, eta horiek ikasteko biderik eraginkorrena testuingurua da.



*“Adreilu”*-hitzak arloetako, ikasgaietako eduki eta kontzeptuak adierazteko hitzak dira: *habitata, kontinentea, digestioa, hiria, ernaldia...* Irakasleek, normalean, hiztegi mota hori irakasten dute gai batekin hasi baino lehen.

Hitz horiek, hasierako mailetan, izenak izaten dira: *hostoa, hodeia, sorbalda...* eta marrazki batez bidez adieraz daitezke.

Azken mailetan, hitzak zailagoak izaten dira, kontzeptuak adierazten dituztelako: *lehengaia, kaloria, energia, erliebea...*

4. Hitz guztiak ez dira berdin ikasten. Hitz konkretuak<sup>2</sup>, gai ezagunekin lotuak eta lehen hizkuntzan antza dutenak errazago ikasten dira abstraktuak eta lehen hizkuntzarekin lotura ez dutenak baino.
5. Hitzak hobeto ikasten dira zenbait testuingurutan agertzen direnean.
6. Ikasleek ezin dituzte testu batean hitz ezezagunak ikasi, testua oso zaila bada haientzat. Testuko hitz gehienak ulertu behar dituzte ezezagunen esanahia inferitzeko.
7. Hitzak behin eta berriro agertu behar dira, ondo ikasi ahal izateko. Noizbehinka, birpasatu egin beharko dira. Hiztegia birziklatu egin behar da.

*Komeni da ikasleak bere hiztegia izatea, artxibadore batean, kutxa batean fitxen bidez, edo horma batean jarrita. Horrela, hitz baten izena behar duenean hara jo dezake. Noizean behin, gainera, lexikoa birpasa dezake.*

*Irizpideak bilatu beharko dira hiztegiak ordenatzeko: ikasleak txikiak direnean, gaiak izan daitezke; ordena alfabetikoan, nagusiagoak badira...*

*Hiztegia erabiltzen irakatsiko diegu.*

### Lexikoa ikasteko estrategiak

- Hitza errepikatu.
- Hitza norberaren hiztegian idatzi.
- Hitz berria gogoratu irudi mental edo marrazki bat eginez.
- Hitza gogoratu esaldi batean txertatuta.
- Hitz berria ipini haren antzekoak diren hitzen talde batean (koloreak, gustuak...)
- Hitz berria beste hitz ezagun batekin lotu. Adibidez, txakurra, katua hitzarekin lotu.
- Hitz berriak sarritan erabili, esanez edo idatziz.
- Kate narratiboa: zerrenda bateko hitzak historia batean sartu.
- Begi bidezko antolatzaileak erabili:
  - Mapa semantikoa (adibidez, autoa orrialdearen erdian eta inguruan autobusa, tren, hegazkina/motorra, gorpilak...)
  - Mapa kontzeptuala.
  - Teknika mnemoteknikoak: errimak, hitzen asoziazioak...

<sup>2</sup>Cooken arabera (2001) bigarren hizkuntza ikasten ari direnek aurrea ikasten dituzte “mahaia” bezalako hitzak, ondoren “altzaria” eta azkenik “mesanotxea”, Roshek hiru maila topatzen ditu:

Goi-mailako hitzak	Altzaria	Fruta
Oinarrizko mailako hitzak	Mahaia	Sagarra
Menpeko hitzak	Mesanotxea	Golden



### Hitza agertzeko moduak

- Realia: hitza aurkeztu objektuaren bidez; adib., gelako gauzak
- Irudiak: marrazkiak, argazkiak.
- Keinuak.
- Aurkakoak aurkeztu: hutsik-betea/handia-txikia...
- Zerrendatu: hitz orokorra eta espezifikoa. Adibidez, jantziak eta horrekin lotutako hitz espezifikoa: prakak, gona, alkandora, jertsea...
- Azalpena.
- Itzulpena.

### Lexikoa lantzeko ataza errazak

(Ataza hauek zehatzago agertzen dira beste dokumentu batean: *lexikoa lantzeko jarduerak*)

#### 1.- Zerrendak egin

**Helburua:** Zerrenda bat bete, mapa semantikoa egin.

**Hasteko:** Hitza, gauzak, tokiak, ekintzak, izan daitezke:

- toki jakin batean topa daitezkeen gauzak: gelan, sukaldean...
- egunero behar dituzun gauzak.
- egunero egiten dituzun ekintzak.
- irudi batean agertzen diren animaliak...

Memory jolasak (irudiak aurrean izan, ondoren ezkutatu, gogoratzen direnak esan)  
BAI ala EZ jolasak. Irudi baten aurrean adierazpen bat egin, bai ala ez erantzuteko.  
Bikoteak egin.

#### 2.- Ordenatu eta sailkatu

**Helburua:** Informazio mota bat sailkatu edo ordenatu, emandako irizpide baten arabera.

**Sailkatu:** Familia bateko hitzak jarrita, arrotza dena identifikatu eta kendu.  
Hainbat gauza, irudi emanda, irizpide baten arabera sailkatu.

**Ordenatu:** Irizpide baten arabera. Adibidez, jarri asteko egunak ordenan, ordena alfabetikoan ordenatu...; egunean zehar egiten ditugun ekintzak denboraren arabera ordenatu.  
Ordenatu koloreak, gehien gustatzen zaizun koloretik hasita gutxien gustatzen zaizunera.

**Sekuentziak:** Ordenatu kronologikoki ekintzak, gertaerak.

#### 3.- Konparatu

**Helburua:** Antzeko informazioa erkatu berdintasunak eta desberdintasunak identifikatzeko.  
Bi iruditan berdintasunak eta desberdintasunak bilatu.



## Bibliografia

AITCHISON, JEAN (1987): *Words in the Mind*. Basil Blackwell.

COADY, J AND HUCKIN, T edit. (1997): *Second Language Vocabulary Acquisition*. Cambridge University Press.

COOK, V (1991): *Second Language Learning and Language Teaching. A rationale for pedagogy*. Arnoldpublishers.

DUTRO, S AND MORAN, C. (2003) *Rethinking English Language Instruction: an Architectural Approach*. Garcia, G.G. (editor) *English Learners Reaching the Highest Level of English Literacy*. International Reading Association.

FILLMORE, LILY WONG (2000): *What Teachers need to Know About Language* [www.cal.org/ericcll/teachers/teachers.pdf](http://www.cal.org/ericcll/teachers/teachers.pdf)

HARMER, J. (1991): *The Practice of English Language Teaching*. Longman.

GAIRNS, R. AND REDMAN, S. (1986): *Working with Words*. Cambridge University Press.

KISNER, K.; LALOR, E.; HIRD, K.: (1993) *The bilingual Lexicon: Exercise Meaning and morphology* in Schrender, R & Weltens (edit) *The bilingual lexicon*. Amsterdam.

KRASHEN, STEPHEN (1985): *The input hypothesis: issues and implications*. New York, Longman O'Malley, J. M. & Chamot, A U. (1990) *Learning Strategies in Second Language Acquisition*. Cambridge University Press.

ROBINSON, PETER (2001): *Cognition and Second Language Instruction*. Cambridge University Press.

WILLIS, JANE (1996): *A Framework for Task-Based Learning*. Longman.